



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera
Carmelo Ayoroa Hualde
Pedro José Alchu Ariztegui

2014ko ekainaren 25ean, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. J.A.E.k lizentzia eskatu zuen, 2 kurba zabaltzeko Ameztiko bidean eta ateratzen diren lur eta harriekin, azpialdea betetzeko. Inguruaren gaineko Ebaluazioko Atalak aldeko txostena eman duela kontutan hartuz, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea A. jaunari, baldintza hauekin:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzea obrak hasi baino lehen. Zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean.
- Txosten teknikoak jartzen dituen baldintzak bete.

2. J.M.I.A.k lizentzia eskatu zuen igogailua jartzeko *Iñigonea* etxearen kanpo aldean, horretarako proiektua aurkeztuz —J.M.R.E. arkitektoak egin eta 2014ko maiatzaren 2an bisatua—.

Kantauriko Ur-Konfederazioak obra egiteko baimena eman zuen (2014ko martxoaren 3ko Ebazpena).

Aipatutako aurrekinak ikusirik eta María Urmeneta eta Francisco Javier Chocarro arkitektoen txosten teknikoa kontuan hartuz, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea I. jaunari, arkitektoak egindako proiektuaren arabera eta baldintza hauekin:

- María Urmeneta eta Patxi Chocarrok emandako txostenean aipatzen diren betebeharrak kunplitu.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 23.716 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 711,48 euro.
- Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispentako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen 23/2011 Foru Dekretuko 3., 4. eta 6. artikulua bete: obra egin behar duen enpresa eraikuntza eta eraispentako hondakinen edukitzaile diren eraikitzaileen erregistroan inskribatua dagoela egiaztatu edo 1.000,00 euroko fidantza edo bankuko abal bat aurkeztu.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. LIZENTZIA DEUSESTZAT JOTZEKO PROZEDURA.

2012ko urriaren 4ko Osoko Bilkuran lizentzia eman zitzaioan Mirari Erreguerena Verari, 2 balkoi eraikitzeke *Apeztegia* etxeke bigarren solairuan, larraina aldera dagoen fatxadan, obrak hasi baino lehen obra-proiektua aurkezteko baldintzapean. Udal-araudiak jartzen duena bete behar dela ere jarri zen baldintzen artean. Proiektua aurkeztu zuen 2013ko uztailaren 31n bere senarraren izenean, R.U.O.

Apeztegia etxea Interesa duten Eraikinen Katalogoan sartua dago, 2. babes mailarekin eta nolahi esku hartu ahal izateko, Kultur Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeke Ondare Arkitektonikoaren Atalaren aldeko txostena behar da. Proiektua aurkeztu eta gero eskatu zen txosten hori eta obraren kontrakoa izan zen. Horrek, erabat deuseza bihurtu zuen emandako lizentzia (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62.1 e) artikulua).

Hori zela eta, 2014ko otsailaren 13ko Osoko Bilkuran erabaki zen, *Apeztegia* etxeke bigarren solairuan 2 balkoi eraikitzeke emandako lizentzia deusestzat jotzeko prozedurari hasiera ematea, erabakiaren berri ematea interesdunei eta aldeko irizpena eskatzea Nafarroako Kontseiluari.

30/1992 Legearen 102.5 artikuak dio "*prozedura, administrazioaren kabuz hasten denean, iraungi egingo da, baldin eta hasi denetik hiru hilabeteko epea betetzen bada ebazpenik eman gabe.*" Hiru hilabeteko epe hori pasa dela kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. lizentzia deusestzat jotzeko prozedura iraungi dela adieraztea.
2. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei eta Nafarroako Kontseiluari.

Jarraian, aurrekariak ikusirik, eta 30/1992 Legearen 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. *Apeztegia* etxeke bigarren solairuan 2 balkoi eraikitzeke emandako lizentzia deusestzat jotzeko prozedurari hasiera ematea, lege ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman zelako: Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostena nahitaezkoa eta loteslea da; lizentzia txostenarik gabe eman zen eta geroago emandako txostena, obraren kontrakoa izan zen.

2. Erabaki honen berri ematea espedientearen interesdun bezala agertzen diren guztiei eta 10 laneguneko epea jartzea, Udal honen aurrean agertu eta bidezko iritzitako guztia alegatzeko.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Milagros Erreguerenak ez du erabaki honetan parte hartu.

4. LATSAGAKO UE 2.

2014ko ekainaren 10ean bilera egin zen 1 poligonoko 11 partzelako jabearekin eta Latsagako UE 2ko sustatzaileekin, UE 2 unitatea urbanizatzeko gaia aztertzeko. Bilera horren berri eman dute alkateak eta idazkariak. Bi alderdiek adostu dute urbanizazio gastuak nola ordaindu eta bidearen zabalera 4,60 metrotan uztea. Udalak erabaki du adostasuna agertzea jabeen akordioarekin eta hori lotua uzteko, hitzarmen bat sinatuko da Udala eta jabeen artean.

5. 2013KO KONTUAK.

2014ko maiatzaren 15ean egindako Osoko Bilkuran adostasun txostena eman zitzaion 2013ko ekitaldiko kontuei. Espedientea jendaurrean egon da eta ez du inork erreklamaziorik egin. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 273. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aho batez onartu dira 2013ko ekitaldiko kontuak.

Pedro José Alchu sartu da.

6. KATASTRO-ALDAKETA.

Aho batez onetsi da 06/01/2014 zenbakia duen katastro-aldaketa, 1 poligonoko 13 eta 14 partzelen azalera aldatzeari buruzkoa eta 14 partzelan dagoen eraikuntzako lurzoruaren jabetzan dagoen akatsa zuzentzen duena.

Carmelo Ayoroa sartu da.

7. EGUR-LOTEAK.

Aho batez erabaki da sutarako egur loteak *Amezti*a parajeen markatzea, etxeetan entregatzeko. Bando bat banatuko da etxez-etxe informazio honekin: egur-loteak etxean entregatuko dira; 7 tona inguruko loteak emango dira; lotearen truke ordaindu beharreko prezioa; gehienez 2 lote eskatzen ahal dira familia bakoitzeko; Udalarari ordaindu beharko zaio lotea hartu eta gero; egurra herriko lursailean uzten baldin bada, hilabeteko epean moztu beharko da. Aipatuko baldintzetan egur lotea nahi duten guztiek Udaletxean eman beharko dute izena.

Enpresa hauei eskatuko zaie aurrekontua, egurra moztu eta ekartzeko (prezioa tonako): Pako Altzuri, Miguel Ángel Erasun, Juan Manuel Mariezcurrena, Maderas Enbor eta Maderas Santesteban. Bideetan lanaren bat egitea beharrezkoa balitz loteak ateratzeko, tonako jartzen den prezioaren barruan egon behar du horren kostua.

8. KOMUNALEKO ATALEKO TXOSTENAK.

1. Idazkariak irakurri du Komunaleko Sailak eman duen txostena, F.G.A.k Jabetza Erregistroan inskribatu duen finkari buruz (3 poligonoko 323 partzela). Txostena aldekoa da eta jakinaren gainean geratu da Udalbatza.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Idazkariak irakurri du gero Komunaleko Sailak eman duen txostena, J.S.A.k Jabetza Erregistroan inskribatu duen finkari buruz (1 poligonoko 84 partzela). Txostenak dio Nabaritasun-akta ez dagoela ongi, lursaila komunala delako. Aho batez erabaki da txostena jakinaraztea S. jaunari, Nabaritasun-akta eta inskripzioa baliogabetu beharko dituela azalduz.

9. MOZIOAK.

1. Hipotekak eragindako kaltetuen Plataformak bidalitako mozioa irakurri da, *“Etxebizitarik gabeko jenderik ez, jenderik gabeko etxebizitarik ez”* izenburua daukana. Ondoren, aho batez onetsi da akordio hau:

1. Alokairuko Etxebizitza Parke Publikoa abian jartzeko eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari, etxebizitzatik kaleratu dituzten familia edo bizikidetzako unitateendako, etxebizitza ordainean emana dutenendako edo antzeko beste negozio juridikoren baten menpe daudenendako, eta baita etxebizitza bat errentan hartzeko adinako diru-sarrerarik ez dutenendako ere. Horretarako, Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu etxebizitzak alokatzea bultzatzeko inbertsio publikoa lehenetsi dezan, etxebizitzak erostea sustatzeko inbertsio publikoa bultzatu beharrean, Etxebizitza Sozialen Parke Publikoa osatu eta indartzeko.

2. Etxebizitza Sozialen Parke Publiko horren gaineko araudia garatzeko eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari; besteak bertze, honako neurri hauek jasoko dituen araudia garatzeko, hain zuzen ere:

a. Hilean zenbat ordaindu behar den erabakitzeke baremoa, familia edo bizikidetzako unitatearen diru-sarreraren arabera alokairua ezarriko duena; beti ere, errenta horrek ez du inor eguneko 6€ baino gutxiagorekin bizitzera behartuko, errenta eta etxebizitza erabiltzeak dakartzan gutxi gorabeherako gastuak kenduta.

b. Eskatzaileen ahalmen ekonomikoa frogatzeko eskatzen den dokumentazioa eskaera egiten den garaian dagokiona izatea, eskaera egin aurreko hiru hilabeteetako diru-sarrerari dagokiena izatea, hain zuzen, nominak direla, ziurtagiriak direla.

c. Etxebizitza eskuratuko dela ziurtatzeko eskatzen den berme ekonomikoa hilabete bateko errenta baino handiagoa ez izatea. Gizarte zerbitzuek erabakiko dute nork ez duen baldintza hori bete beharrik.

d. Hiri-errentamenduen Legeak hobesten duen moduan, etxejabeak ordaintzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ).

e. Familia edo bizikidetzako unitateak errenta sozialeko etxebizitza eskuratu ahal izateko gutxieneko diru-sarrerarik ez eskatzea.

f. Etxebizitza horietako bat eskuratu ahal izateko, familia edo bizikidetzako unitatearen diru-sarrera haztatuak ez izatea Ondorio Askotako Errenta Adierazle Publikoa baino 1,4 aldiz handiagoak, baldin eta gizarte zerbitzuek bertzelakorik erabakitzen ez badute.

3. Erabaki hauek Nafarroako Gobernuari jakinaraztea, eta baita Nafarroako hedabideei ere, erabaki hauen berri zabaldu dezaten.

2. Tafallako Udalak, 0-3 eskolen %100eko finantziarioari buruz hartu zuen erabakia irakurri ondoren, akordioari atxikitzea erabaki da aho batez.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. Altsasuko Udalak, ETBri buruz bidalitako mozioa irakurri ondoren, aho batez erabaki da:

1. Iturengo Udalak, LTD bidez ETB Nafarroa Guztian ikusteko bide berriak lantzea eskatzen dio Nafarroako Gobernuari.
2. ETB Nafarroan lehenbailehen ikusteko behin behineko formulak onartzeko eskatzen dio Iturengo Udalak Nafarroako Gobernuari. Esaterako, egungo ETBren sare analogikoa digitalizatuz edo bestelako neurriekin.
3. Mozioa Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta ETBko buruei bidaltzea.
4. Mozioaren berri hedabideetan zabaltzea.

10. ZENBAIT ESKAERA.

1. F.E.A.k baimena eskatu zuen ardien purinak botatzeko komunalean. Udaltzak oniritzia eman du 2 poligonoko 490 partzelan botatzeko, beharrezkoak diren baimenak lortu eta gero.

2. Lurzatiak ixteko baimena eman zaio aho batez J.A.M.O.ri, 2 poligonoko 298 partzelako itxitura egiteko pikete eta alambrearekin eta bertan sagarrondoak landatzeko. Baldintza hauek bete beharko ditu M. jaunak: hirugarrenen eskubideak errespetatu behar dira eta lurzati komunalak eta bideak ixtea debekatua dago.

3. F.G.A.k baimena eskatu zuen urtegian erori den pago 1 aprobetxatzeko. Aho batez erabaki dute G. jaunari saltzea arbola, basozainak egingo duen balorazioko prezioan.

4. A.T.A. (Auskalo eTa Abar) Elkarteak proiektua aurkeztu zuen, instalazio bat egiteko *teilegi zaharrea* (2 poligonoko 242 partzela), baratzeko erraminta zaharrak berrerabiliz. Errotulazioa eta mantentze lanak A.T.A.ren ardura izango lirarteke. Eztabaidatu ondoren, instalazioa egiteko baimena eman da aho batez.

Mikel Gerekak ez du erabaki honetan parte hartu.

5. J.R.L.R.ek lizentzia eskatu zuen, 2 poligonoko 147 partzela ur-sareari lotzeko, baratza ureztatzeko. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ur-sareari lotura egiteko lizentzia ematea R.L. jaunari, baldintza hauekin:

- Lotura egin nahi duen tokia sare pribatuan dago eta I.P.ri ere eskatu beharko dio baimena.
- Urbanizazioko Ordenantzaren 10. artikulua jartzen dituen baldintzak bete beharko ditu.
- Ur-sarearekin lotura egiten duen puntuan desbideratze arketa bat eraiki beharko du.
- Lursailaren sarreran arketa eraiki beharko du, bertan ontza (pulgada) erdiko ur-kontadorea jarritz.

6. R.U.O.k lizentzia eskatu zuen, 2 poligonoko 546 partzela ur-sareari lotzeko, baratza ureztatzeko. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ur-sareari lotura egiteko lizentzia ematea U. jaunari, baldintza hauekin:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Urbanizazioko Ordenantzaren 10. artikulua jartzen dituen baldintzak bete beharko ditu.
- Ur-sarearekin lotura egiten duen puntuan desbideratze arketa bat eraiki beharko du.
- Lursailaren sarreran arketa eraiki beharko du, bertan ontza (pulgada) erdiko ur-kontadorea jarritz.

Milagros Erreguerenak ez du erabaki honetan parte hartu.

11. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko ekainaren 10ekoa, *Ariztegienea* etxeko fatxadak pintatzeko lizentzia eman ziona R.E.ri; 2014ko ekainaren 19koa, *Mendaurko* embaltsean kanpaldia egiteko baimena eman ziona Abarun Sociedad Cooperativari; 2014ko ekainaren 24koa, Iturengo bestatan salmenta-postu bat jartzeko baimena eman ziona M.A.M.ri; 2014ko ekainaren 24koa, zenbait katastroaren aldaketa Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuan tramitatzeko baimena eman zuena.

12. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Sustapeneko kontseilariaren 35E/2014 Foru Agindua, F.E.ri jarritako hertsatzeko isunaren aurkako errekurtsua ukatu zuena; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Kantauriko Ur-Konfederazioaren Ebazpena, 2014ko ekainaren 2koa, M.L.ri baimena eman ziona harri-lubeta eraikitzeke 2 poligonoko 524 partzelan; Sustapeneko kontseilariaren 47E/2014 Foru Agindua, J.A.E.ren aurka hasitako hirigintzako legezketasunaren babesarako espedientea eta espediente zigortzailea ebatzi zituen ebazpenaren aurkako errekurtsua ukatu zuena.

2. Herri bideen eta erreken egoerari buruz hitz egin da jarraian. Zenbait bide sasiakin tratatuak eta itxiak daudela ikusirik, bide horiek garbitzea erabaki da. Bestalde, zenbait erreka edo lursailtan gertatzen dena da, lursailak eta bideak garbitu ondoren ateratzen den materiala (sasiak, adarrak, hostoak...) errekatara botatzen dela edo bazterretan utzi pilatua. Hau dela eta, bando bat banatzea erabaki da, arazo hau azalduz eta agindu hau emanez: lursailak garbitzen direnean, ateratako materiala lursailtan bertan erre behar da edo usteltzen utzi, errekarra edo aldameneko lursailtara bota gabe.

3. Sustapen Departamentuko Ustiapen Zerbitzuak ezeke txostena bidali du, altuera txikiko balkoiak daudela ohartarazteko seinalea jartzeko herriko sarreran. Pasatzeko lehenasuna ezartzen duen seinalea jartzea proposatzen da txostenean. Herrilan Zuzendaritzari eskatu zitzaion txostena, zeharbideko trafiko-arazoak konpontzeko eta txosten hori ez da iritsi oraindik. Txostena erreklamatzera erabaki da eta estugune-seinalerik jartzen ahal den galdetzea.

4. Ingeleseko gela berria eraikitzeke obrak egitea erabaki da aho batez. Obraren aurrekontua, 5.566 eurokoa da, BEZa barne.

5. Herriko Ostatuko errentamendu-kontratuak jartzen du, euskarak agertu behar duela jendeari ematen zaion harreran, errotuloetan, kartetan, menuetan, tarifetan, etab. Baldintza hori betetzen ez duela ikusirik, aho batez erabaki da maizterrari jakinaratzea euskaratu behar dituela.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Malerrekako Euskara Zerbitzuak euskaratzen laguntzen du eta zerbitzu hori eskaintzen dio Iturengo Udalak.

6. Plazako bankoak zerbaiterako kentzen direnean, kokapena berraztertzea komenigarria dela erabaki da, pixka bat atzerago jartzeko akaso. Bestalde, sarrera beti libre egoteko, aho batez erabaki da aparkatzeko debekua pintatzea lurrean.

7. *Malerrekako Egunean* Iturengo karpa jarri zen Donezteben eta 1.500 euro kobratu omen ziren horregatik. Ze jaia ospatzen zen kontutan hartuz, Iturengo Udala ez dago ados kobratze horrekin. Karpa egiteko Udalak eman zuen diru-laguntza bilatuko da.

13. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:50ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.